

BASTIDA IKASTOLAKO HIZKUNTZ PROIEKTUA:

DOKUMENTUA

1-IKASTOLAREN IBILBIDEA ETA EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Bastida Ikastola Bastidan, Arabako Errioxan kokatua dagoen ikastola da eta gure egoera soziolinguistikoa oso berezia dela esan behar da: Arabako eremu erdaldun batean kokatua dago ikastola eta, gainera, haur kopuru handi bat Euskal Herritik kanpo bizi da.

Hauek dira datuak, zehazki:

-Euskal Herriko umeak %36,90 dira eta Euskal Herritik kanpokoak %63,10.

-Herrialdeka Arabakoak (%36,90), Errioxakoak (%57,73) eta Burgosekoak (%5,35) dira.

-Herrika Bastidakoak (%34,52), Harokoak (%32,73), Mirandakoak (%5,35), Casalarreinakoak (%8,33), Arabako beste herrietakoak (%2,38) eta Errioxako beste herrietakoak (%16,66) dira.

Hala ere, aipagarria da oro har familien jatorria euskalduna dela, izan ere, gurasoen %61,03a Euskal Herrian jaio da. Hala ere, euskararekiko duten ezagutza ez da oso altua, gurasoen %14ak bakarrik daki euskara.

Bestalde, udalerriko datuak ere esanguratsuak dira. Bastidan euskaldunak %27,41 dira, ia euskaldunak %20,18 eta erdaldunak %52,40. Hala ere, etxeke erabilerari erreparatzen badiogu, %90ak etxean gaztelaniaz egiten du eta %8ak euskaraz edo elebidunez.

BASTIDA IKASTOLA ETA HIZKUNTZAK; BILAKAERA HISTORIKOA

Bastida Ikastola 1979. urtean sortu zen, eta aurten 30. urtemuga ospatuko dugu. 9 ikaslerekin jarri zen martxan, guztiak bastidarrak, eta gaur egun 170 ikasle ditugu.

Eremu erdaldunean dagoela eta haur guztiak erdaldunak zirela kontuan hartuta, hasiera baten B eredia izan zen nagusi. Egoera hau izanda ere,

ikastola baten izaera ez zen ahaztu eta euskarari aparteko garrantzia eman zitzaion, izan ere, gai garrantzitsuenak euskaraz irakasten baitziren.

Hala ere, handik urte batzuetara, 96-97 ikasturtean, D ereduja jarri zen martxan. Aldaketa honen arrazoia ikastolan egindako hausnarketa bat izan zen. Euskara bultzatu eta haur haiek euskaraz bizi zitezten lortu nahi bazen, beharrezkoa zen ikastolako jarduera aldatzea eta euskara hutsean aritzea. Ume haien euskal eredu eta eremu bakarra ikastola zen eta horregatik aho batez erabaki zen aproposagoa zela D ereduja abiatzea. Honekin batera, 1991n Ikastolen Elkarteak proposatutako *Eleanitz-English* proiektua ere martxan jarri zen ikasturte hartan. Bi aldaketa erraldoi hauekin ikastolaren egunerokotasuna eta handik aurrerako jarduna irauli genuen, eta momentu hartako behar nagusietako bat ase genuen: haurrak euskarara murgiltzeko bitarteko guztiak jartzea, hain zuzen ere.

Hala ere, oraindik euskara ikastolako eremura mugatuta zegoela ikusi zen eta horregatik, 90eko hamarkadan zehar *Euskaraz Bizi* proiektuan murgildu ginen, euskara gelatik eta ikastolatik ateratzeko.

Aipagarria da duela 4 urte, 06-07 ikasturtean, gertatu zen aldaketa berria, ikasturte hartan ordura arte izandako udalaren eraikina utzi eta eraikin propioa lortu genuen. Eraikin honek hobe asetzen ditu geure beharrak, handiago baita eta bertan gela bereziak baitaude. Gainera, eraikin berriarekin batera, Lapuebla Labarka-ko Assa Ikastolarekin elkarlan sakon bat martxan jarri zen: Bastida Ikastolan Assa Ikastolako gelategi bat ireki zen DBH 1. eta 2. mailak bertan ikasi ahal izateko.

2000. urtean Ikastolen sareak *Ikastolen Hizkuntza Proiektua* egitasmoa martxan jarri zuen eta Bastida Ikastolan horren beharra ikusi zen, izan ere, euskara bultzatzen saiatzeko aparteko laguntza baten beharrea aurkitu ginen. Hori zela-eta, egitasmo horretan murgildu eta hortan dihardugu *Bastida Ikastolako Hizkuntza Proiektua* sortzeko asmoz.

2-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

2.1. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Hizkuntz Proiektua, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da.

2.2. HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

Aurreko definizioari jarraituz, Hizkuntz Proiektuaren markoa eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu beharko da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira bakoitzean. Askotariko hizkuntz erabilera horiek erreperitorio linguistiko zabal eta desberdin baten erabilera sortu eta eskatu ohi dute. Hizkuntza menderatzea, hain zuzen ere, pertsona batek bizi duen egoera horietako bakoitzean era eraginkorren jardun ahal izateko hizkuntz erreperitorio horren jabe izatea da. Horretarako, asmoa da hezkuntza-komunitateko partaideen hizkuntz erreperitorioaren kantitatean eta dibertsitatean eragitea; horrela, hizkuntza jakin batean aritzeko aukera gero eta egoera gehiagotan izanik, komunikatzeko konpetentzia garatuko dute; kalitatean ere eragingo dute, egoera horietako bakoitzean hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko gai izan daitezen, gero eta modu eraginkorragoan.

Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu ikastolako komunikazio-testuingurua zehatz-mehatz aztertzea eta hizkuntzen garapenean eragiten duten eremu guztiak, hots, hizkuntzekiko esku-hartze eremuak identifikatzea.

Horren ondorioz, Bastida Ikastolak erabaki du hizkuntzekiko esku-hartze eremuen sailkapena honako hau izatea:

1. irudia. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak



2.2.1. Eremu pedagogikoa

Atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak biltzen dira eta, horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira. Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan banatzen dugu: gela barrukoa eta gelaz kanpoko.

- **Gela barruko eremuak** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan.

Alde batetik, **kudeaketa pedagogikoaren** atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena.

Beste alde batetik, arlo guztiak besarkatzen dituen **interakzio didaktikoaren** esparruari ere begiratzen dio eremu honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorra egitea du helburu esparru horrek.

Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko **prestakuntza** eta **baliabideak** jasotzen dira hemen; hala nola,

hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.

- **Gelaz kanpoko eremuak** irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastolaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil badaitezke ere, eremu hori hizkuntza gutxituaren, euskararen, sustapenari begira dago bereziki. Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara -kalitatezko euskara- izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertu behar da, hura aberasteko metodologia eta estrategiak landu behar dira, eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaileen prestakuntza zein baliabideak zehaztu behar dira.

2.2.2. Eremu instituzionala

Atal honen barruan aurkezten diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki.

Eremu instituzionala ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da. Bi azpi-eremu biltzen ditu honek ere: **eraketa eta barne-komunikazioa** eta **kanpo-harremanak**.

- **Eraketa eta barne-komunikazioaren** atalean, ikastolaren testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko beharrezkoa den hizkuntz kudeaketari dagozkion erabaki nagusiak biltzen dira. Hartara, hizkuntz paisaia zaintzeko irizpideak ezarri eta haien jarraipena ziurtatzeaz gain, estrategiak zehaztu behar dira eremu horri dagokion hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzeko eta gainditzeko. Harreman-sare horiek bitan banatu ditugu, *ikastetxea* eta *familia*, bakoitzean berariaz eragin ahal izateko.

- **Kanpo-harremanen** atalean jasotzen dira ikastolak euskara sustatzeko inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

Honako taula honetan egin da aipaturiko eremuen zehaztapena:

1. taula. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK					
HEZKUNTZA-PROIEKTUA					
Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza					
EREMU PEDAGOGIKOA			EREMU INSTITUZIONALA		
GELA BARRUKOA		GELAZ KANPOKOA	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA		KANPO-HARREMANAK
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA	(jolasakdiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, irteerak eta abar)	IKASTETXEA	FAMILIA	(beste ikastetxeak, gizeko-erakundeak, udal-ak eta harremanak, horritzaileak)
1. HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA o Hizkuntza arloaren kudeaketa o Helburu, eduki eta ebaluazio inzipideak 2. BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-inzipideak (hizkuntzen traterara instrumentala). 3. PROIEKTU OSAGARRIAK o Zehar-lerroen hizkuntz traterara o Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza o Irakaslearen hizkuntz eredu eta hizkuntzarekiko jarrera o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera 2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA o Komunikazio-egoera esanguratsusak o Taldekatze motak eta inzipideak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Hezitzaileen hizkuntz erabilera o Hezitzaile-ikasle arteko hizkuntz erabilera o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera 2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA o Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak 3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Jarduaren metodologia o Hizkuntzekiko jarrerak 4. BALIABIDEAK o Gune eta zerbizuetako baliabideen hizkuntz traterara	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Gobeinu, administrazio eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta traterara o Langileen hizkuntz profila o Hizkuntzen traterari buruzko erabakiak bilzen dituzten dokumentuak 2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak 3. BALIABIDEAK o Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz traterara o IKT euskarriaren hizkuntz traterara. o Ikastolako espazioen hizkuntz traterara	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Familien hizkuntz tipologia o Familia barruko hizkuntz erabilera o Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak 2. GURASOEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak 3. BALIABIDEAK o Komunikazio baliabideak: aldiakariak eta abar	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Harremanetarako hizkuntz inzipideak 2. ERABILERA EREMUEN SUSTAPENA o Harreman-sareak indartzea o Euskal kultur ekintzak bultzatzea o Euskarazko ekintzak bultzatzea.
4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Arloko metodologia eta didaktika o Hizkuntzekiko jarrerak 5. BALIABIDEAK o Arlo bakoitzeko ikasmaterialak o Espazioen banaketa eta hizkuntz traterara o Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza					

Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen deskripzio horrek aukera ematen digu Hizkuntz Proiektuaren garapenean egoera linguistikoaren diagnosi osoa, hizkuntz plangintza orekatua, koordinatua eta koherentea egiteko; bai eta plangintza horren eraginaren jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko ere. Sailkapen horri jarraituz diseinatu eta garatu da Bastida Ikastolaren egoeraren diagnosis eta horretatik ondorioztatzen den lan-plangintza.

2.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Halako marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete daitezen, ezaugarri hauek bete nahi ditu Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak:

- **Koherentzia.** Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentea izan nahi du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea eta ikuspegia jasotzen ditunez gero, Hizkuntz Proiektuan hartzen diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu.
- **Egokitasuna.** Gure testuinguru sozio-ekonomiko-linguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntz heziketaren ibilbidea garatu nahi du.
- **Legezketasuna.** Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartuko du.
- **Integrala eta parte-hartzailea.** Hizkuntz Proiektuak eragina izan nahi du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan; komunitate hori osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabera gauzatu behar dira bertan formulatutako irizpideak. Jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometitzen dituzte.
- **Dinamikoa eta bizia.** Hastapeneko bertsio batetik abiatuta, ondorengo ikasturteetan egin eta egingo diren urteko plangintzen ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasotzen ditu Hizkuntz Proiektuak.

2.4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KOKAPENA

Hizkuntz Proiektuaren zeregina da, hain zuzen ere, Bastida Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea.

Halaber, Hizkuntz Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena dute ikastolaren Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, are gehiago, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza ororen tresna nagusia delako.

Aipaturiko hiru proiektu nagusiok, hortaz, etengabeko elkarreraginean ari dira, bata bestea elikatzen, grafiko honetan irudikatzen den moduan:

2. irudia. Hizkuntz Proiektuaren kokapena



Hauetaz gain, Urteko Plangintzan ere eragina izango duela esan beharra dago, izan ere, urtean zehar ekintza ezberdinak egin behar izango ditugu Hizkuntza Proiektuan jarritakoa garatzeko asmoz, eta horiek Urteko Plangintzan jaso beharko dira.

3-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN IKUSPEGIA ETA HELBURUAK

Bastida Ikastolak, gainerako ikastolek bezala, *kalitatezko hezkuntza euskalduna* du bere helburua.

Ikuspegi horretatik, ondoko hauek dira bere jardunaren hizkuntza-helburu orokorrak.

3.1. HIZKUNTZEKIKO HELBURU OROKORRAK

- Ikastolak bere ikasleei lagundu nahi die formazio euskalduna izan dezaten, hots, euskara ongi mendera dezaten, eta euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konpromisoa har dezaten. Gauzak horrela, Ikastolak euskal hiztunak hezi nahi ditu, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ikastolak, Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona euskaldun eleaniztunak hezi nahi ditu, hartara, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuko du.
- Halaber, Ikastolak euskaraz gauzatu nahi du bere hezkuntza-komunitatearen barne-bizitza; euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu mota guztietako harremanetan eta horretarako sortutako bitartekoetan.
- Euskararen indarberritzeari dagokionez, Ikastolak euskararen normalizazio-prozesuan eragile izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean. Hartara, bestelako gizarte eragileekin zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.

3.2. HIZKUNTZEKIKO ERREFERENTZIAZKO LORPEN-MAILAK

Bastida Ikastolak Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak baino ez ditu. Hizkuntzak direla-eta, gure helburua haurrak Derrigorrezko Oinarrizko


Hezkuntzaren amaierako helburuak lortzeko bidean jartzea litzateke. Beraz, gure zentroan lortu beharreko helburu horiek lantzen hasiko dira gure umeak.

Bastida Ikastolan euskara (2 urteko gelatik), ingelesa (4 urteko gelatik) eta gaztelania (LHko 1. mailatik) landuko dute; eta ibilbide naturala Lapuebla Labarka-ko Assa Ikastolan jarraitzea izango da, eta bertan prozesu hori amaitzea, ondoren zehaztutako helburuak lortuz.

3.2.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaierarako

Honenbestez, Bastida Ikastolak berea egiten ditu Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza-sistemak ezartzen dituen mailez gain, *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean* (2006) finkatu diren hizkuntzekiko lortu beharreko konpetentzia-mailak, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:

3. irudia. Hizkuntzen lorpen-mailak



2. taula. DBH amaierarako hizkuntzen lorpen-mailak

HIZKUNTZAK	LORPEN-MAILAK
Euskara	B2
Gaztelania	B2
Ingelesa	B1
Frantsesa	A2

Euskaran zein **gaztelanian** erabiltzaile independentearen B2 maila lortzea da helburu; honela deskribatzen du Europako Erreferentzia Markoak (op.cit.):

“Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jarioasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez”.

Ingelesean, nazioarteko “lingua franca” izaerari erantzunez, erabiltzaile independentearen B1 maila lortu nahi da:

“Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko”.

Frantsesean oinarrizko erabiltzailearen A2 maila lortu nahi da:

“Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere”.

3.2.2. Batxilergo amaierarako

Batxilergo amaierarako, euskaran zein gaztelanian Europako Markoaren erabiltzaile gaituaren C1 maila eta ingelesean erabiltzaile independentearen B2 maila lortu nahi da.

Eta hiru hizkuntza horiei dagozkien lorpen-mailez gain, frantsesa hautatzen duten ikasleek B1 maila eskura dezatela lortu nahi da.

3. taula. Hizkuntzen lorpen-mailak

HIZKUNTZAK	LORPEN-MAILAK
Euskara	C1
Gaztelania	C1
Ingelesa	B2
Frantsesa	B1

4-HIZKUNTZ PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

Edozein Hizkuntza Proiektu egiterako orduan, ikastolako Hezkuntza Proiektua aintzat hartzea beharrezkoa da, izan ere, bertan jasotzen diren erabakiek (hezkuntzari eta hizkuntzei buruzkoak) zuzenean eragiten diote eta, gainera, biak bat etorri behar dira. Beraz, Hezkuntza Proiektuan jasotakoa izango da edozein Hizkuntza Proiekturen abiapuntua.

4.1-HIZKUNTZ ETA KULTUR POLITIKAREN OINARRIAK

4.1.1. Eskolaren zeregina euskara indarberitzeko prozesuan

Ikastolek badute oinarrizko curriculum komun bat non ikastolen printzipioak markatzen diren. Printzipio horiei jarraituz, Bastida Ikastolak bere jardura aurrera darama. Horien artean berebiziko garrantzia dauka, noski, euskara indartu beharrak, izan ere, gaur egungo ikastolen zeregin nagusietako bat euskarari bultzada ematea baita.

Euskara, gaur egun, normalizazio bidean aurkitzen da, eta hizkuntza gutxitua izanik, motibazio eta ahalegin berezi bat behar da euskara ikasi eta irakasteko. Normalizazio hau gizarte eragile guztien lana bada ere, eskola da, dudarik gabe, bere eragile eta bultzatzaile nagusia. Honetarako behar-beharrezkoa da plangintza integral eta estrategiko bat diseinatzea.

Eskolak erronka erraldoi hau aurrera eramango badu, nahitaezkoa izango du hezkuntza komunitate osoaren inplikazio eta elkarlana, eta partaide guztien arteko lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatu bat martxan jartzea; eta, horrez gain, eskolaren eremu guzti-guztiak aintzat hartu behar izango dira (gelaz kanpoko eremua eta eremu instituzionala barne).

Beraz, eta laburbilduz, gaur egungo eskolak hamaika erronka ditu eta horien artean aurkitzen dira kalitatezko euskara irakastea, jendartean eragitea, euskara sustatzea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea eta erabilera eremuak irabaztea.

4.1.2. Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea

Gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat jendearen mugikortasuna da. Hemendik sortzen den egoeran eskolak badu zeregina, eta zeregin honetan ikastolon hautua *kultur integrazio barne-hartzailea* da, hau da, euskara da hizkuntza nagusia eta berau da bultzatu beharrekoa, baina gainerako hizkuntzak ere aintzat hartu eta positibotzat hartzen dira. Beraz, printzipio nagusiak batasuna (euskarari dagokionez) eta aniztasuna (beste hizkuntza eta kulturei dagokienez) dira.

Bastida Ikastolak printzipio hauek onartzen ditu, baina Bastidan momentuz ez dugu mugikortasun gehiegi izan, beraz, ez gara egoera honen aurrean inoiz jarri.

4.2-HEZKUNTZAREN IKUSPEGIA

Gaur egungo eskolaren helburua pertsonak bere dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) garatzea da. Ikastolek ere erronka honi heldu diote, konpetentziak garatzen ari da, pertsona konpetenteak hezi nahi ditu.


Bost dira konpetentzia orokorrak:

- *Pentsatzen eta ikasten ikasi.
- *Komunikatzen ikasi.
- *Norbera izaten ikasi.
- *Elkarrekin bizitzen ikasi.
- *Egiten eta ekiten ikasi.

Hauek guztiek bere barne hartzen dute hizkuntza, hau da, hauek garatu ahal izateko hizkuntza maila egokia izatea beharrezkoa da. Izan ere, hizkuntza autoerregulaziorako tresna da, komunikatzeko tresna, ezagutza eraikitzekeo tresna, literatura garatzeko tresna. Beraz, konpetentzia hauek guztiak garatzeko hizkuntza garatzeak berebiziko garrantzia dauka, azken hau gabe bestea ezinezko bailitzateke.

Ondorengo irudian ongi azaltzen da hau guztia:

4. irudia. Hizkuntza tresna nagusia konpetentzia orokorren garapenean



Beraz, aurretik esandakoa kontuan hartuta, gaur egun hizkuntza garatzeak inoiz baino garrantzi handiagoa du, eta hauek eremu guztietan landu behar izango dira (ez bakarrik gela barruan, are gutxiago hizkuntza arloan).

Honetarako teoria eraikitzaileez (Piaget) gain, interakzionismo soziala (Vygotsky eta Bruner) ere aintzat hartzen da hezkuntza planteamendu gisa (hau da, elkarrekin duen garrantzia kontuan hartzen da). Aprendizaia, beraz, maila indibidualean, sozialean eta testuinguruarekin interakzioan garatzen da; eta gure Hizkuntz Proiektuak arlo hauek guztiak barne eta kontuan hartuko ditu.

4.3-HIZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGIA

4.3.1. Hizkuntzaren ikuspegia

Konpetentzietan oinarritako gaur egungo hezkuntzan, hizkuntza gizarte ekintza bezala ulertzen da, hau da, hizkuntza pertsona batek testuinguru zehatz batean helburu zehatz bat lortzeko darabilena da. Beraz, hizkuntza gizarte testuinguru zabalago bati lotua aurkezten zaigu, eta bere bitartez giza ekintza eta harreman guztiak erregulatzen dira.

Hau ikas-irakasteko Bronckart-en ikuspegi sozio-diskurtsiboa, eta bertatik ondorioztatzen den testu-pedagogia dira oinarriak. Pertsonak hizkuntza ekintzen bidez jarduten dute munduan, hauek ahozkoak zein idatzizkoak izan daitezke, eta komunikazio unitate hauei testu deitzen zaie. Testuak amaigabeak dira, eta horregatik testu-generotan multzokatzen ditugu, eta horien ulermena eta ekoizpena dira Bastida Ikastolak ere aurrera daraman metodologiaren oinarria.

4.3.2. Euskaran ardaztutako hezkuntza eleaniztuna

Gaur egun gizartek dituen beharrei erantzuteko beharrezkoa da hezkuntza eleaniztuna martxan jartzea. Bertan euskara da nagusi, baina hizkuntza gutxitua izanik eta gizarte beharrak kontuan harturik, euskaldunok beste hizkuntza batzuk ikasteko premia ere badugu. Beraz, gaur egungo eta etorkizuneko ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ezagutu eta menperatu behar izango dituzte. Hauek ez dira bakoitza bere kabuz garatzen, modu integratu batean baizik, hizkuntz menpekotasun printzipioan (Cummins) oinarrituta: bada hizkuntza gaitasun orokor bat hizkuntza guztietarako balio duena eta honela hizkuntza batetik beste batera transferentziak egin ditzakegu.

Ikastolek, eta Bastida Ikastolak ere, printzipio hauei jarraitzen diete eta beraien arabera jarduten dute; eta jardun hau honela garatzen da hizkuntzaz hizkuntz:

**Euskara:* hizkuntza nagusia da, komunikazio eta ikasketa hizkuntz da.

**Gaztelania:* bigarren hizkuntza da, batez ere, erabilera formala eta ikasketei lotutakoa landuko da.

**Ingelesa:* nazioarteko hizkuntza garrantzitsuena da, globalizazioari lotutakoa. Lanerako edo ikasketak jarraitzeko baliatuko da.

**Frantsesa*: mugaz bestaldeko euskaldunekin harremanak izateko asmoz landuko da.

Bastida Ikastolak lehen hiru hizkuntzak horrela lantzen ditu, eta laugarrena (frantsesa) Bigarren Hezkuntzan lantzen dute gure ikastolatik kanpo.

4.3.3. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Ikastolen hizkuntzekiko helburua ikasleen komunikazio konpetentziak garatzea, hizkuntzak bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten da. Hau *komunikatzen ikasi* konpetentzian barne hartzen da, eta ikastolaren partaide guztiek egingo diote ekarpena eta dute honen ardura: gela barruko eremuan (esparru garrantzitsua da eta arlo guztietako irakasle guztien plangintza koordinatu bat behar izango da), gelaz kanpoko eremuan (hemen ere era hausnartu baten jokatu beharko da, baliabide pedagogiko eta didaktiko egokiak aukeratuz eta bertako partaideak prestatuz), eta eremu instituzionalean (ikastolaren barne-kanpo harremanak euskaraz garatuz). Hau guztia kudeatzeko markoa Hizkuntza Proiektuak eskainiko digu.

Eremu pedagogikoari dagokionez, hauek dira konpetentzia horrek egindako ekarpenak:

-Gela barruko eremuaren hizkuntza beharrak: hizkuntza egoki garatzea da arrakasta akademikoaren giltza, ikaste-irakaste prozesuaren tresna nagusia delako. Hau horrela izanik, irakasle guztiak bihurtzen dira hizkuntza irakasle, eta hau era kontzientean irakatsi behar izango dute, bere arloko hizkuntza beharrei erreparatuz eta bakoitzak bere arloari lotutako gaitasun kognitibo-linguistikoak eta testu-generoak landuz.

-Hizkuntz arloaren trataera: arlo honen helburua bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-konpetentzi garatzea da, hau da, ikasleek hizkuntza erabiltzen ikastea. Horretarako edukiak testu-generoak izango dira.

3 azpipuntu zehazten dira:

*Curriculum integratua: hizkuntza guztiak ikas-irakasteko curriculum proposamen bakar bat erabiltzen da. Bertan, arloaren konpetentzia nagusiak, blokeen definizioa eta edukiak aukeratzeko irizpideak berak dira hizkuntza guztietarako; baina ebaluazio irizpideak eta hizkuntza bakoitzaren lorpen mailak aldatu egiten dira.

Hona hemen taula:

5. irudia. Hizkuntz curriculum bateratuaren egituraketa



*Metodologia: honen lanketarako komunikazioa eta erabilera izango dira abiapuntuak, eta ondorengo erreferentziak kontuan hartuko dira: komunikazio proiektu esanguratsuak baliatuko dira, komunikazio unitatetzat testua hartuko da (hauek berezko ezaugarriak dituzten testu-generotan multzokatuta), helburu didaktikoen inguruan sekuentziatuta aurkeztuko da, prozedurak eta goi-mailako estrategia kognitiboen garapena nagusituko da, ezagutza instrumentala eta formala bateratuko dira eta partaideen arteko elkarreragina indartuko da.

*Ebaluazioa: helburuetan eta edukietan proposatutako aldaketa honek aldaketak ekarriko ditu ebaluazioan ere, izan ere, “zer ebaluatu, hura irakatsi” printzipioa aintzat hartuko da. Beraz, kompetentziak ebaluatuko ditugu hemendik aurrera, eta ebaluazio horren ezaugarriak hauek izango dira: hezitzailea, integrala, kontestualizatua, testuala, anitza, prozesuala eta partekatua.

Bastida Ikastolak aurretik aipatutako puntuak onartzen ditu eta horien arabera ekiten hasi da, izan ere, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza martxan jartzen ari gara.

-Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena: euskara bultzatzeko gela barruko eremuaz gain, gelaz kanpoko eremua ere aintzat hartzea behar-beharrezkoa da. Eskola-giro osoa euskararen bilgune bihurtzeko, haur eta gazteei interesatzen zaizkien ekintzak eskaini beharko dira. Ekintza hauek askotarikoak izateaz gain, eraginkorrak eta baliagarriak izan behar dira. Honetarako planteamendu didaktiko zehatz bat egin beharko da: programazio, sekuentziazio, helburu, eduki, metodologia eta ebaluazio zehatz batekin.

Eremu honen helburuak hauek dira:

*Ahozko elkarreragina segurtatzea eta bultzatzea: ahozko elkarreragin egoki bat bultzatu beharko dugu, horretarako ingurune soziala planifikatuz eta diseinatuz; ekintza horien “curriculum” idatziz, azken batean.

*Hezitzaile guztiak euskara irakasle: egoera honetan hizkera ez-formala eta lagunartekoa landuko da, eta erregistro hau lantzeko gune ezinbestekoa da.

*Hizkuntza jarrerak lantzea eta adostea: euskara hizkuntza gutxitua denez, bere aldeko jarrerak bereziki landu behar izango ditugu.

Bastida Ikastolan gelaz kanpoko eremuari buruz zehaztutakoak egoki ikusten badira ere, ingurune erdaldun batean kokatzen denez ikastola, zailtasunak ditugu jende euskalduna bilatzeko, are gehiago jende euskalduna eta prestatua. Beraz, gure Hizkuntz Proiektuan honi buruzko hausnarketa egin behar izango dugu eta eremu hau euskalduntzeko eta ondo planifikatzeko erabakiak adostu.

4.3.4. Hizkuntz dibertsitateari eta kalitateari begira, erregistroen trataera

Hizkuntza bizitzako arlo guztietan erabiltzen irakasteko motibazio duen eskolak, bizitzako arlo bakoitzean erabiltzeko moduko hizkera motak irakatsi behar izango ditu, erregistro ezberdinak irakatsi behar izango ditu, alegia. Izan ere, hizkuntza menderatzea ez da bakarrik zuzentasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio egoera bakoitzean egokia den eran jardutea.

Eskola barruko euskarari buruz hitz egitean, irakaslea edo hezitzailea izango da erregistro hauen eredu-emailea, eta ondorengo gomendatzen da: eskola eremuan eredu estandar eta jasoa erabiltzea. Baina zein hizkera mota erabili eremu ez-formaletan? Hau hezkuntza-komunitateko ezaugarriak aztertuz erabaki beharko da.

Bastida Ikastolaren kasuan gela barruan euskara jaso eta batua baliatuko dira; eta inguruan euskalkirik ez dugunez, gelaz kanpoko eremu ez-formaletan euskara batu ez-formala. Dena den, irakasleen euskalkietako aportazioak onartu egingo dira eta gainera positibotzat hartuko dira, gure ikasleen hizkera aberastuko dutelakoan.

5-HIZKUNTZ PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK

5.1. PRESTAKUNTZARAKO ESPARRUAK ETA ARDATZ NAGUSIAK

Bastida Ikastolaren prestakuntza planetan aintzat hartuko dira hezkuntza-komunitatearen partaide eta komunikazio-eremu guztiak, baita Hizkuntza Proiektua aurrera eramateko beharrezko esparru guztiak. Horretarako, lau esparru nagusi hauetan eragingo da:

- Hizkuntza prestakuntza
- Metodologia prestakuntza
- Hizkuntza jarreraren inguruko prestakuntza
- Hizkuntza Proiektua dinamizatzeko prestakuntza

5.1.1. Profesionalen prestakuntzaren ardatzak

Bastida Ikastolako profesionalentzako prestakuntzak bi ardatz hartu beharko ditu aintzat, profesional bakoitzaren inguruan: bata, hiztun gisa bere hizkuntza gaitasunaren hobekuntza; eta bestea, ikasleen aurrean askotariko ekintza komunikatiboetan erabakigarri suertatzen diren eredu-emaille eta diskurtso-bideratzaile gisa.

- **Hizkuntz prestakuntza**

Euskarari dagokionez profesional guztientzako abiapuntua gaitasun operatibo eraginkorra (**C1 maila**: diskurtso sail zabal bat erabiltzeko gaitasuna, jarioetasuna eta bat-bateko komunikazioa bideratzeko aukera ematen duen diskurtsoa osatzeko gaitasuna) izanik, gaitasun komunikatibo orokorrak lantzeaz gainera, bere lan-arloari lotutako gaitasun komunikatibo espezifikoak ere kontuan hartuko dira. Hau da, berezko hizkuntza beharrei erantzuteko baliabideak eta estrategiak jarriko dira eskura menderatze-mailara (**C2 maila**: goi-mailako hiztunen diskurtsotan aurkitzen den zehaztasunez, egokitasunez eta erabilera-erraztasunez aritzeko gaitasuna) iristeko.

Bestalde, Bastida Ikastolak beste hizkuntzetako irakasleak direnei eta interesaturik leudeken profesional guztiei, euren gaitasun komunikatiboa hobetzeko prestakuntza planak jarriko ditu abian.

- **Metodologiaren prestakuntza**

Urte luzez hedaturik izan dugun hizkuntzen ikuspegi estruktural-gramatikaletatik hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren ikuspegi komunikatiborako jauzia erabat emateko dagoenez, hizkuntzen erabileraren alde egingo dugu. Horretarako, beharrezkoa izango da berriazko metodologia-prestakuntza saioetan ondorengo ildo nagusiak aintzat hartzea eta lantzea: bata, ahozko elkarreraginezko diskurtsoa; bestea, irakasle guztiak hizkuntza irakasle.

Ahozko elkarreraginezko diskurtsoa. Konpetentzia komunikatiboa lantzeari begira, premiazkoa dira ahozkotasuna eta elkarreragina bultzatzea, kontzeptu bi horiek zer diren ondo ulertzea eta nola landu daitezkeen jorratzea. Ikasleek ahozko hizkuntza ingurunearekin eta ingurukoekin elkarreraginean nola eraikitzen duten landuko da. Era berean jorratuko da esparru bakoitzaren testuinguruaren berezitasunen arabera sortzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak nola balia daitezkeen, gela barruan eta gelaz kanpo, ikasleek hizkuntzaren erabilera funtzionala egin dezaten.

Guztiak hizkuntza irakasle. Ildo beretik, berebiziko garrantzia hartuko du metodologiaren inguruko prestakuntzak. Izan ere, horien bitartez ikasiko dituzte hizkuntza arloko eta gainerako arlotako irakasle eta hezitzaileek testuinguruaren arabera ahozkotasuna elkarreraginean nola landu, sortzen diren komunikazio esanguratsuak kudeatzeko estrategiak, ikasketa kooperatiboa bultzatzea, arloetako operazio kognitiboak gauzatzen dituzten testu-generoak nola landu...

- **Hizkuntza jarreraren inguruko prestakuntza**

Bastida Ikastolan euskararekiko jarreraren inguruko alderdiak lantzeaz batera, ikasle eleaniztunak hezi nahi ditugunez, honako gai hauetaz jabetu beharko dugu:

- Euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetzea sustatzearen premiaz.
- Hizkuntza eta kultur aniztasunak gizakion eta bizitzaren garapenerako duen garrantziaz.

- **Hizkuntza Proiektua dinamizatzeko prestakuntza**

Ikastolako Hizkuntza Proiektuak eskola-giro osoan aintzat hartu eta lantzen denez, ekintza guzti horiek elikatzeko, dinamizatzeko eta bideratzeko profesional ditu eta izango ditu. Profesional horiek prestakuntza berezitua izango dute, non hainbat arlo landuko dituzte:

- Oinarrizko marko teorikoa
- Egoeraren diagnostikoa eta ondorioztatzen den plan estrategikoa egiteko baliabideak
- Ikastolako giza taldea dinamizatzeko estrategia

5.1.2. Gurasoen hizkuntza prestakuntza

Belaunez belauneko hizkuntza transmisio betea lortzeko bidean, Bastida Ikastolak gurasoei hizkuntzaren inguruko prestakuntzarako aukerak eskainiko dizkie gurasoei, irizpide hauek aintzat hartuz:

- **Eskolaren testuinguruan eskainitako hizkuntza baliabideak oinarri harturik**, umeekin etapa bakoitzean lantzen diren materialekin eta programazioekin lotura zuzena duten euskara ikastaroak.
- **Oinarrizko erabiltzaile-mailari begira**. Ahalik eta guraso gehien oinarrizko erabiltzaile izan dadin, Ikastolak Eskualdeko Euskara Zerbitzuarekin eta euskaltegiarekin elkarlanean, euskara ikasteko ikastaroak bultzatuko ditu.

- **Hizkuntza jarreraren inguruan.** Euskara ardatzat duen heziketa eleaniztuna sustatu nahian, gurasoekin hizkuntza jarrerak landuko dira, ildo nagusi hauek kontuan hartuz:
 - Euskara ondorengoei transmisioaren ardura bere egitea. Seme-alabek euskaraz egin dezaten gurasoek euskararekiko kontzientzia eta konpromisoaz gainera, gurasoek euskara erabiltzea sustatuko da.
 - Hizkuntz eta kultur aniztasuna aintzat hartzea, ikasle eleaniztunak hezteko.

5.1.3. Ikasleen hizkuntza prestakuntza

Bastida Ikastolan ikasleen hizkuntza garapena -hizkuntz jarrerak barne-ohiko hezkuntza-prozesuan bideratzen bada ere, badira **hizkuntza behar bereziak dituzten kasuak**, bereziki, eskolatze berantiarren ondorioz. Kasu hauetan Ikastolaren egitekoak bi eremutara zuzenduko dira:

1. **Eskola barruko eremura.** Ikastolak hizkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzak, hizkuntza gaitasuna indartzearen lagungarri diren egitasmoak (ikastaro bereziak, mintza-saioak, autoikaskuntza-programak...) jarriko ditu martxan.
2. **Eskolaz kanpoko eremura.** Aurrez aipatutako kasu horietan, euskararen erabilera eta ukipen-orduak gehitzearen, Ikastolak, herriko beste eragileekin (Euskara Zerbitzua, kirol eta kultur elkarteak...) elkarlanean, hizkuntza behar bereziak dituztenentzat euskaraz burutuko diren eskolaz kanpoko jarduerak egitearen alde lan egingo du.

6-HIZKUNTZA PLANGINTZA

Bastida Ikastolak, bere helburu orokorretan, hautatutako eleaniztasun-eredua aurrera eramateko, hizkuntza bakoitzak ikastola barruan duen funtzioa eta hartzen dituen eremuak definitu eta zehaztu ditu, ondorengo lerroetan aipatzen den eran.

6.1. HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN

Bastida Ikastolak egina duen plangintzaren arabera, hizkuntza bakoitzak, ikastola barruan, izan beharko dituen erabilera-eremua eta funtzioa honako hauek dira:

4. taula: Hizkuntzen erabilera eremuak

EREMUAK	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA
GELA	X	X	X
BARRUKOA			
GELAZ	X	X*	
KANPOKOA			
ERAKETA ETA BARNE	X	X	
KOMUNIKAZIOA			
KANPO	X	X	
HARREMANAK			

* Haur gehienen ama hizkuntza gaztelania denez, gelaz kanpoko eremuan gaztelaniako egoerak suertatzen dira (ikastolak bultzatu ez arren). Gainera, herrian antolatutako ekintza gehienak gaztelaniaz dira.

Bastida Ikastolak, gainerako ikastolek bezala, *kalitatezko hezkuntza euskalduna* bere helburua duenez gero, ikastolako eremu orotan hizkuntza nagusia **euskara** izan dadin etengabe jardun beharko du.

Gaztelania gela barruan landu beharko den arloa da, eta arloari dagokion harreman-hizkuntza gaztelania izan beharko da.

Horretaz gain, Bastida Ikastolako familien tipologia eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, gaztelaniak eremu instituzionalean ere presentzia izan beharko du: Gobernu-organoan, guraso-harremanetan eta kanpo-harremanetan (Ikus 7.5. atala).

Ingelesa gela barruan landu beharko den arloa ere da, 4 urtetik 12 urte bitarterako ikas mailetan, eta arloari dagokion harreman-hizkuntza ingelesa izan beharko da.

Horretaz aparte, eskolaz kanpoko ekintza moduan *Enjoy English* proiektua bultzatu da udarako, baina ez da inoiz aurrera eraman, taldea osatu gabe geratu delako.

6.2. ESKOLATZE GOIZTIARRA ETA BERANTIARRA

Bastida Ikastolan orain arte ez dugunez honelako kasurik izan, egoera honen aurrean jarraitu beharreko irizpideak ez ditugu zehaztuta. Dena den, aurrera begira, kontuan hartzeko puntu bat izan daiteke.

6.3. GELA BARRUKO HIZKUNTZAK

6.3.1. Hizkuntza bakoitzaren ordu kopurua eta hasierako adina

Bastida Ikastolak hizkuntzekiko finkatu dituen lorpen-mailak lortzeko asmoz, hizkuntza bakoitzari ondoko ordu kopurua esleitu dio ikastola barruan.

5. taula: Hizkuntzen ordu kopurua

MAILA	ADINA	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	INGELESEZ
<i>Haur</i>	0 2-3	X		
<i>hezkuntza</i>	1 3-4	X		
	2 4-5	X		X (2 ordu)
	3 5-6	X		X (2 ordu)
<i>Lehen</i>	1 6-7	X	X (2 ordu)	X (3 ordu)
<i>Hezkuntza</i>	2 7-8	X	X (2 ordu)	X (3 ordu)
	3 8-9	X	X (4 ordu)	X (3 ordu)
	4 9-10	X	X (4 ordu)	X (3 ordu)
	5 10-11	X	X (4 ordu)	X (3 ordu)
	6 11-12	x	X (4 ordu)	X (3 ordu)
<i>Hizkuntza</i>				
<i>bakoitzaren</i>		%85	%7,15	%7,85
<i>denbora</i>				

- **Euskara** izango da, arestian aipatu bezala, ikastolaren arlo desberdinen irakaskuntzarako eta komunikaziorako tresna nagusia, ikasleen eskolatzeko osoan ikaskuntza-denboraren lautik hiruko portzentajea, gutxienez, hartzen duena.

- **Gaztelaniaren** kasuan aldiz, hizkuntz lorpen-maila euskararena bera izan arren, eskolatzeko-prozesuan denboraren hamarren bat, gehienez, eskainiko zaio, gure inguru soziolinguistikoan duen nagusitasunak sortzen dituen aukerak baliatuz. Hizkuntza hau ikastea 1. mailatik aurrera hasiko da, era formalean.

• **Ingelesaren** gutxieneko esposizio denbora ziurtatzeko, eta hura ahalik eta era orekatuenean banatzeko, ingelesaren sarrera goiztiarraren hautua egina du Bastida Ikastolak 1994z geroztik, Ikastolen Elkarteko Eleanitz-English proiektua garatuz Haur Hezkuntzako 4 urtetik Lehen Hezkuntza 6 mailara.

Urte batzuetan zehar Plastika ikasgaia ingelesez eman zen, baina urteekin proiektu hau bertan behera geratu zen irakasleen ordutegiak moldatzeko ezintasunagatik.

6.3.2. Hizkuntza bakoitzaren lorpen-mailak eta kanpoko frogak

Kontuan hartuta Bastida Ikastolan Lehen Hezkuntzaraino baino ez dugula, ikasleek ez dituzte kanpoko froga bereziak pasatu behar (azken urteetako Diagnosi Froga izan ezik), beraz, gure ikasleak etorkizunean pasatu beharko dituzten froga horietarako prestatzen hasi beharko ditugu: euskaran, gaztelanian eta ingelesean maila egokia lortzeko.

6.4. GELAZ KANPOKO EREMUEN HIZKUNTZEN BANAKETA

Xede pedagogikoak dituzten gelaz kanpoko jardueretan, euskara komunikazio hizkuntza nagusia izatea du helburu Bastida Ikastolak, hartara, honako hizkuntz erabilera-eremua finkatu du:

6. taula: Gelaz kanpoko eremuen hizkuntzen banaketa

GELAZ KANPOKOA	EUSKARA	GAZTELANIA
JOLASALDIAK	X	
JANTOKIA	X	X
GARRAIOA	X	X
SARRERA-IRTEERAK	X	
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	X	X*
IRTEERAK ETA EGONALDIA	X	

*Eskolaz kanpoko ekintzak, Udalak antolatutakoak, gaztelaniaz izaten dira.

Nahiz eta Bastida Ikastolaren helburua gelaz kanpoko eremuan sortzen diren egoera komunikatiboak euskaraz gauza daitezen izan, errealitatea bestelakoa da eta ikasleak adinean gora doazen heinean, beraien arteko harremanetan gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen dute. Egoera hau hobetzeko asmoz, esparru horietan eragiteko ekintza bereziak bideratu beharko dira. Ekintza horiek, Hizkuntz Proiektuko Urteko Planean jaso, ikasturtean zehar gauzatu eta amaieran baloratu egin beharko dira. Eraginkorrak diren ekintzak sistematizatu egin beharko dira eta berriak sortzen ahalegindu. Are eta gehiago, Bastida Ikastolak, ekintza horiek planteamendu didaktiko baten barruan txertatzea eta garatzea ditu etorkizuneko erronka.

Aipagarria da Bastida Ikastolaren egoera berezia. Ikasle gehienak Bastidatik kanpo bizi dira eta horregatik zaila da hauek Bastidan eskaintzen diren eskolaz kanpoko ekintzetara animatzea.

6.5. EREMU INSTITUZIONALEAN HIZKUNTZEN BANAKETA

Euskal Erkidego Autonomoan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik, eta ikastolako ingurune soziolinguistikoa eta familia tipologia kontuan harturik, Bastida Ikastolak, hizkuntzen erabilerari dagokionez, ondorengo erabakiak hartu ditu eremu instituzionalerako:

7. taula: Hizkuntzen banaketa eremu instituzionalean

EREMU INSTITUZIONALAK ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA
<i>Gobernu, administrazio eta funtzionamendu organoen hizkuntza</i>	X	X	
<i>Langileen hizkuntz profila</i>	X	X	X
<i>Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak</i>	X	X	
<i>Langileen hizkuntza</i>	X	X	X

prestakuntza

Ekonomia eta administrazio X X

dokumentazioaren hizkuntza

trataera

IKT euskarrien hizkuntza X X

trataera

Ikastolako espazioen X X X

hizkuntza trataera

FAMILIA

Familia barruko hizkuntza X X

erabilera

Ikastolaren eta gurasoen X X

arteko harremanak

Gurasoen hizkuntz X X

prestakuntza

KANPO HARREMANAK

Beste ikastetxeekiko X X

harremanak

Gizarte elkarteekiko X X

harremanak

Udal eta herri erakundeekiko X X

harremanak

Hornitzaileekiko harremanak X X

6.5.1. Gobernu, administrazio eta funtzionamendu organoen hizkuntza erabilera

• Gobernu-organoak

Biltzar Nagusia

Bastidako egoera soziolinguistikoa dela-eta, ezinezkoa da hauek euskaraz burutzea. Beraz, hasierako agurra eta gai-ordena izan ezik, gaztelaziaz jarduten da.

Artezkaritza Kontseilua

Hemen ere, egoera soziolinguistikoa dela-eta, ez da posible euskaraz aritzea, beraz, gaztelaniaz jarduten da.

6.5.2. Funtzionamendu organoen hizkuntza erabilera

- **Zuzendaritza Taldea, Klaustroa, Etapa-Ziklo-Maila bilerak**

Bastida Ikastolako funtzionamendu-organoen hizkuntza, euskara izango da.

6.5.3. Langileen hizkuntza profila

Bastida Ikastolak irakasleei nahiz bestelako profesionali ondorengo hizkuntz profila eskatuko die:

- **Zuzendaria eta irakasleak:** Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen C1 maila euskaraz (EGA edo baliokidea). Atzerriko hizkuntza irakasleei, berriz, 2009 urtea geroztik, Atzerriko Magisteritzeko diplomatura eskatuko zaie.
- **Administrazioko langileak:** euskara jariorasunez menperatzea.
- **Jangelako hezitzaileak:** ez da hizkuntz lorpen-mailarik eskatuko, egoera dela-eta ez delako posible langile euskaldunak kontratatzea. Datozen urteetan helduko diogu gai honi.
- **Autobusetako begiraleak:** ez da hizkuntz lorpen-mailarik eskatuko, egoera dela-eta ez delako posible langile euskaldunak kontratatzea. Datozen urteetan helduko diogu gai honi.
- **Garbitasuneko langileak:** umeekin harremanik ez daukatenez, ez zaie ezer eskatzen.
- **Eskolaz kanpoko ekintzetako hezitzaileak:** euskaraz hitz egiteko jariorasuna izango dute. Ez da hizkuntz lorpen-mailarik eskatuko.

6.5.4. Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak

Hizkuntz Proiektua izango da Bastida Ikasolaren hizkuntzen trataerari buruzko erabaki guztiak biltzen dituen dokumentua. Horretaz gain, ikastolako beste zenbait dokumentutan (Hezkuntza Proiektua, Barne araudia eta Estatutuak) hizkuntzen trataerari buruzko aipamenak egingo dira. Aipamen horiek guztiek, Hizkuntz Proiektua dokumentuarekin koherentzia izango dute.

Hezkuntza Proiektua eta Barne Araudia berrizten ari garenez Hizkuntza Proiektuko erabakiak kontuan hartuko ditugu hauek berrizterakoan eta alderantziz. Beraz, erabaki horiek, momentuz, ez ditugu jasoko, eta dokumentu hauek berriztuta ditugunean, helduko diogu lan honi, hau da, bertako erabakiak Hizkuntza Proiektuan txertatzeari.

6.5.5. Langileen hizkuntz prestakuntza

Momentuz ez dugu hau erabakita, ezta inon jasota ere. Plan estrategikoan honen inguruko aipamenak eta erabakiak hartuko ditugunez, erabaki horiek hartzearakoan txertatuko ditugu hemen ere.

6.5.6. Ekonomia eta administrazio dokumentazioaren hizkuntz trataera

Bastida Ikastolako ekonomia eta administrazio dokumentu gehienak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira. Gainera hau plan estrategikoan eta urteko plangintzan jasota dugu. Hala ere, gure inguru erdalduna eta dugun harreman sarea kontuan hartuta, zaila izango da guztia elebietan izatea. Dena den, gure lehentasuna euskara edo dokumentazio elebiduna izango da.

6.5.7. IKT euskarrien hizkuntz trataera

Bastida Ikastolako IKT euskarriak, ahal diren neurrian, euskara hutsean izango dira. Ikasleekin erabilitako software libre guztia, euskaraz eskainiko da.

Baina, ikasleek ezinbestez ezagutu behar dituzten software 'propietario' estandar batzuk (Windows eta Microsoft Office), eta hauek ere euskaraz eskainiko zaizkie.

6.5.8. Ikastolako espazioen hizkuntz trataera

Bastida Ikastolako paisaia, neurri handienez, euskara hutsean izango da:

- **Errotulazioa:** euskara hutsean.
- **Informazio-gunea:** euskara izango da nagusi. Baina onartuko dira jatorriz gazteleraz idatzita dauden informazio interesgarriak.
- **Pasabideak:** ikasleen lanak eleanitzak izango dira. Hizkuntza bakoitzari dagozkion lanak non kokatu datorren urtean erabakiko da urteko planaren barruan, eta ondoren hemen jasoko dugu erabakitakoa.

6.5.9. Familia barruko hizkuntz erabilera

Bastida Ikastolako familia tipologia ezagutzeko, lau ikasturtetik behin Brankaren bitartez jasotako datuak eguneratuko dira.

6.5.10. Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak

Atal honetan hutsunea dugu Bastida Ikastolan, izan ere, zenbait kontu adostuta izan arren, badaude beste asko erabakita eta jasota ez ditugunak eta irakasle bakoitzak bere irizpideak jarraitzen ditu kasu hauetan.

- ***Ikastolako oharrak***

Bi hizkuntzetan, euskaraz eta gazteleraz, idatziko dira.

- ***Ikasleen ebaluazio txostenak***

Bi hizkuntzetan, euskaraz eta gazteleraz, idatziko dira.

- ***Gurasoen hizkuntz prestakuntza***

Bastida Ikastolako familien hizkuntz tipologia kontutan hartuta, ikasturtero familiei euskara ikasteko eta hobetzeko, ikastolan bertan egingo diren ikastaroak eskainiko dira.

Baina, lehen esan bezala, baditugu beste zenbait atal zehaztu gabe, besteak beste, ***Gelako bilerak*** (tutore- irakasle-familia artekoak), ***Bakarkako bilerak*** (tutore-familia artekoak), ***Ikasleen ebaluazio txostenetako oharrak***, etab. Hauek urteko planean jasota ditugu eta datorren urtean zehaztu eta hemen sartuko ditugu.

6.5.11. Beste ikastetxeekiko harremanak

Datorren urteko planean jasota dugu erabaki hau hartzeko. Dena den, kontuan hartuta harreman gehienak Errioxako eta Burgoseko ikastetxeekin ditugula, kasu askotan gaztelania erabili behar izango dugu, nahitaez.

6.5.12. Gizarte elkarteekeko harremanak

Datorren urteko planean jasota dugu erabaki hau hartzeko. Dena den, gure ingurune soziolinguistikoa kontuan hartuta, kasu askotan gaztelania erabili behar izango dugu.

6.5.13. Udal eta herri erakundeekiko harremanak

Datorren urteko planean jasota dugu erabaki hau hartzeko. Dena den, adostuta egon ez arren, gaur egun euskara lehenesten dugu.

6.5.14. Hornitzaileekiko harremanak

Datorren urteko planean jasota dugu erabaki hau hartzeko.

6.6. HIZKUNTZ ERREGISTROEN TRATAERA

Erregistro formalak eta ez-formalak noiz eta non erabili zehaztea, Bastida Ikastolaren etorkizuneko erronka da. Egun arte, ikastolan honi buruz hitz egin da, hizkuntza ez-formalari buruzko ikastaro bat egin dugu eta denontzat da garrantzitsua erregistro ezberdinak eta euskalki ezberdinak txeratzea nola edo hala; baina ez dugu jakin hau planifikatzen eta norberaren irizpideen esku geratu da lanketa hau.


Hala ere, lehen esan bezala, argi ikusten da etorkizunean irizpideak hobetu, zehaztu eta findu beharko direla eskolaz kanpoko eremuaren xede nagusian eragiteko, hau da, eremu hori euskalduntzeko.

7- HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO BIBLIDEA

7.1. IBILBIDEAREN SEKUENTZIA GRAFIKOA

Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektua, bizirik eta etengabeko eraldaketan dagoen egitasmoa denez, epe luzera begira diseinatutako plangintza du, hamazazpi urrats nagusitan sailkatua, eta bost urteko iraupen ziklikoa duen ibilbidea martxan du.

8. irudia. Ibilbidearen sekuentzia grafikoa



7.2. IBILBIDEAREN URRATSAK

7.2.1. Hausnarketa eta sozializazio fasea

2008-2009 ikasturtean, Bastida Ikastolako zuzendaritzak Hizkuntz Proiektuaren beharra sumatu, eta, Ikastolen Elkarteak idatziriko erreferentzia-markoa landu ondoren, horren gaineko hausnarketa-prozesuari hasiera eman zion. Horrela, 2009ko ekainean Hizkuntz Proiektuaren beharra klaustroarekin partekatu zuen.

7.2.2. Egoeraren diagnostikoa

Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektuko plangintza diseinatu aurretik, ikastolako egoera ongi aztertu beharra zegoen. Beraz, ikastolako hizkuntzekiko esku-hartze eremu guztietan hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnosi sakon bat egin zen 2009-2010 ikasturteko 1. hiruhilekoan. Lan horretan, Ikastolen Elkarteak eskainitako prozedura eta diagnosi tresnak erabili ziren.

Fase horretan, esku-hartze eremu guztien egoeraren datu zehatzak bildu ziren, eta datu horietatik ikastolako indar guneak, ahuleziak eta beharrak antzeman eta idatzi zituen Hizkuntz Proiektua Taldeak (Ikus eranskinak). Txosten hori zuzendaritza taldearekin kontrastatu zen eta profesional guztien eskura jarri.

Ondoren, diagnosiaren txostenean antzeman ziren beharrei lehentasunak ezarri zitzaizkien, eta txosten berri bat idatzi zen. Txosten hura ere, Hizkuntz Proiektua Taldeak zuzendaritzarekin kontrastatu zuen, klaustroari aurkeztu zitzaion eta honen onespena jaso zuen.

7.2.3. Plan estrategikoa eta Urteko Plana

Lau urterako aurreikusitako Beharrak eta Lehentasunetatik lau urterako plana eta hortik abiatuta urtebeterako hustuketa egin zen, horien bitartez, ikastolak antzeman dituen beharrei progresiboki erantzun nahi dira.

2009-2010 ikasturteko plana eta ondorengoak idazteko, Ikastolen kolektiboa eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatu da.

Urteko planak Hizkuntz Proiektua Taldeak idatziko ditu, zuzendaritzak horien onespena bideratuko du, eta horren arabera antolatuko ditu prestakuntza, baliabideak, ordutegia eta abar.

7.2.4. Hizkuntza Proiektuaren idazketa

2009-2010 ikasturteko azken pausoa, Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idaztea izan da. Dokumentu horrek 3 azpi-dokumentu bildu zituen bere baitan:

- ***Bastida Ikastolako Hizkuntz Proiektua 2009-2010***

Dokumentu horrek 8 atal biltzen ditu.

- ***Bastida Ikastolako Diagnostika 2009-2010***

Arestian esan bezala, ikastolaren egoerari buruzko diagnostik eratorritako emaitzak biltzen dira atal honetan.

- ***Bastida Ikastolaren plan estrategikoa 2010-2014***

3. atalean, diagnosiko emaitzetatik eratorrita datozen urteetako lan ildo nagusiak jasotzen dira.

7.2.5. Urteko memoria

Bastida Ikastolak, urteko planaren helburuak hiru hilabetetik behin ebaluatzen ditu.

Urtean zehar egindako egokitzapenak, helburu eta jardueren lorpen-maila, eta arrakasta eta urteko lan-plangintza berrirako hobetzeko iradokizunak zehazten dira bertan.

Lan hori Hizkuntza Proiektua Taldeak zuzendaritzarekin batera egiten du.

7.2.6. Hizkuntza Proiektuaren dokumentua eguneratzea

Hurrengo urteetako lanaren arabera, Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa eguneratzen joango da eta eranskinak txertatuko zaizkio.

7.2.7. Plan estrategikoaren ebaluazioa

Bost urteko ibilbide ziklikoaren amaieran, 2013-2014 ikasturtean, Bastida Ikastolak bere plan estrategikoa, Bastida Ikastolaren Beharrak eta Lehentasunak 2009-2010, ebaluatuko du. Horretarako azken lau urteko memoriak eskuratu eta lau urte horietako helburuen lorpen-maila aztertuko da.

Horren ondoren, hasierako diagnostian identifikatutako beharrak eta lehentasunak berrikusi eta hainbat eremuri buruzko diagnostika berregingo da.

Azterketaren ostean, lehentasunak egokituko dira eta ibilbide ziklikoa berriro abian jarriko da, plan estrategiko berria idatziz.

Azkenik, dokumentu hau idatzi da, alegia, Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren bertsio eguneratua. Eguneratze horretarako ikastolen kolektiboak argitaratutako 'Ikastolen Hizkuntz Proiektua' erreferentzia markoa jarraituko da.

8- HIZKUNTZA PROIEKTUAREN KUDEAKETARAKO EGITURA

Bastida Ikastolaren Hizkuntz Proiektuaren garapenak eta balioespenak, ikastolan egun dauden funtzionamendu-organo guztien inplikazioa eta elkarlan sendoa izan beharko lituzke. Lehen urtea denez, agian ez dugu lortu proiektua egoki zabaltzea eta jendea inplikatzeko, baina hori izango da datozen urteetako gure erronka.

Hala ere, badugu berezko antolaketa egonkor bat: Hizkuntz Proiektu Taldea eta Euskaraz Bizi taldea.

Baina, hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatze aldera, egitura egonkor horretaz gain, beste hainbat talderekin lankidetzara ere beharko da.